

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 24,1 milioi euro jarri ditu Tokiko Inbertsioen 2009-2012 Planean, eta dagoeneko ehuneko 60 gauzatu da

*Tokiko erakunde bakar batzuk bakarrik erabili dute Plana zorra finantzatzeko*

Martes, 02 de agosto de 2011

Tokiko Inbertsioen 2009-2012 Planak ekuatorea lortu duen une honetan, Nafarroako Gobernuak dagoeneko 24,1 milioi euro jarri ditu finantzaketarako; hau da, Planerako aurreikusitako ekarpen osoaren ehuneko 60a. Plana Foru Legearen bidez onartu zuen Nafarroako Parlamentuak 2008ko urrian.

Tokiko erakunde bakar batzuk bakarrik baliatu dira Planaz zorra finantzatzeko.

Planari esker, toki erakundeek horren barruan sar ditzakete Plan zuzentzaileak, tokiko programazioa, ibilbideen urbanizazioa eta askatasunez erabakitzeko obrak. Hain zuzen ere, legeak berrikuntza bat ekarri zuen; hots, "askatasunez erabakitzeko obrak", eta, hasiera batean, 40 milioi euroko finantzaketa izan zuen. Era horretan, toki entitateek dagokion zenbatekoa erabil dezakete gehien komeni zaizkien proiektuetarako. Zehazki, askatasunez erabakitzeko 624 espediente aurkeztu dira, eta Nafarroako Gobernuak dagoeneko ordaindu du 24,1 milioi euroko zenbatekoa, dagokion ekarpenaren %60,39 (ikus A Koadroa), lehen lehendakariordeak eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko kontseilariak, Roberto Jiménez Allik, informazio-ekitaldi batean gaur adierazi duenez.

Kopuru hori banatzeko irizpideekin, batez ere biztanleria gutxieneko entitateak hartu dira kontuan, biztanleria-kopuruaren arabera banaketa proportzionala egin gabe. Guztira, 29,6 milioi eskatu dira, eta 2010. urtera bitarte 27,9 milioi eman dira. Bestalde, eskaera batzuk aztertze-fasean aurkitzen direnez, oraindik ez da erabaki Gobernuak dagokien ekarpena egingo duen.

### Eskaeren %93 inbertsioak egiteko

Onartutako ekarpenen erabilerari dagokionez, tokiko erakunde gehienek inbertsioetarako erabiltzea erabaki dute. Horrela aukeratu du kasuen %92,77ak, eta horietarako 24,8 milioi euroko inbertsioa behar izan



Erriberriko aireko bista

da. Aldi berean, tokiko erakunde gutxi batzuk bakarrik erabili dute Plana zorra finantzatu ahal izateko, partida horren kontura ere aukera hori gauzatu baitaiteke, diruzaintzako geldikinak finantzatze edo finantza-pasiboak amortizatze aldera. Zehazki, horretarako, 36 eskaera onartu dira (guztien %7,23), 4,8 milioi euroren truke (eskatutako ekarpenaren %16,29), B Koadroan ikus daitekeen moduan.

Askatasunez erabakitzeko funtsaren kontura finantzatzeko, Nafarroako Gobernuak, guztira, 523 eskaera jaso ditu, 2010. urtera bitarte, jardunak hasteko edo egiteko, 29,3 milioi euroren truke. 2010. urtean, 305 eskaera egin ziren, aurreko urtean izapidetutakoak baino %39,9 gehiago. Eskaera horietatik guztietatik 498 onartu dira (%95,21), eta 25 onartu gabe geratu dira (18 baztertu dira Planeko Legeko alderdiren bat ez betetzeagatik, eta beste 7 kasutan tokiko erakundeek eskaera atzera bota dute).

Foru Legeak eskaerak bide elektronikoz aurkezteko aukera eskaintzen zuen, eta, eskaeren %10,84 (54) elektronikoki izapidetu dira, Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokor Elektronikokoan sortutako eskaera espezifikoaren bidez. Gainerakoak, 444, (guztien %89,16), berriz, beste erregistro batzuen bidez izapidetu dira, aurrez aurre.

523 eskaera aurkeztu dituzte tokiko 326 erakundek, eta horietatik 180 Udalak dira (28,5 milioiko eskaerak) eta gainerakoak (146) udalbatzak (1.057.950 euroko eskaerak).

### **Plan zuzentzaileetako obren egoera**

Plan Zuzentzaileetan aurreikusitako obra-espeditente guztietatik (1.078) 115 lan amaituta zeuden 2010 ekitaldia amaitzean (%10,67), 16,4 milioiko inbertsioarekin, C Koadroan ikus daitekeenez.

Horren inguruan adierazi behar da espeditente guztietatik planen barruan dagoeneko sartuta zeudela gauzatzen ari ziren 455 obra (%42,21), (78 milioiko inbertsioa), eta beste 490 sartzeko zeudela (%45,45). Espeditenteen %1,6 baliogabetuta geratu ziren.

### **Inbertsioen Aparteko Plana**

Tokiko Inbertsioen 2009-2012 Plana onartu eta gero, Nafarroako Parlamentuak 2010eko ekainean onartu zuen Tokiko Inbertsioen 2009-2012 denboraldiko Planaren Aparteko Plana. Aparteko Plan horren helburu nagusia zen eskaeretan aurretik ikusi ezin zitezkeen disfuntzio batzuk eta horren ondoriozko lehentasunetan sortzen zirenak zuzentzea, lurralde-mailan desoreka-egoerak sortu baitituzte", Legearen arrazoia azaltzerakoan adierazitako moduan.

2010eko uztailan, Foru Legea garatzerakoan, Nafarroako Gobernuak Aparteko Plan horren deialdia onartu zuen; Plana, inbertsio batzuk osatzen zuten, eta 9 milioi euro banatuko ziren zati berdinetan 2011 eta 2012 ekitaldien artean. Helburua zen Plan Arruntean dagoeneko sartutako 68 inbertsio osatzea eta 50 inbertsio berri finantzatzea.

Iazko urtearen amaiera aldera (D Koadroan ikus daitekeenez), espeditente gehienak (95) oraindik sartzeko zeuden, eta jardunean zeudenekin (23) 424.000 euroko inbertsioa egingo zen.

**(Dokumentazio osagarri gisa, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) orrian ikus daiteke Tokiko Inbertsioen 2009-2012 Planaren 2010eko balantzea).**